

LANBIDE PROGRAMACIÓN  
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZEHARKAKO MODULUA  
GOI MAILAKO

Ingeles Teknikoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

Lanbide Heziketako eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional  
y Aprendizaje Permanente

LANBIDE  
HEZIKETA ZIKLOEN  
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN  
DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZEHARKAKO MODULUA

GOIKO MAILA

Ingeles Teknikoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA**  
Lanbide Heziketako eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Saillburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**  
Viceconsejería de Formación Profesional  
y Aprendizaje Permanente

Argitalpena: 1.a, 2010eko uztaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)


Egilea: Carmen Presa Ardanza  
Lourdes de la Rica Lobera  
Amparo Pérez Castroviejo

Edizioa eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán  
KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL  
[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-482-2010



Orduak: 40  
Unitateen kop.: 8

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

## AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05. or.
1. unitate didaktikoa: Hiztegia erabiltzea	08. or.
2. unitate didaktikoa: Posta elektronikoa, fax eta burofax profesionalak interpretatzea eta jaulkitzea	10. or.
3. unitate didaktikoa: Enplegu-eskaerari erantzutea. Curriculum Vitaea lantzea eta babestea	13. or.
4. unitate didaktikoa: Informazioa eskatzea eta jaulkitzea; hitzordua egitea; produktuak igortzeko/hartzeko datak eta baldintzak berrestea	17. or.
5. unitate didaktikoa: Eskaerako/harrerako orriak eta fakturak interpretatzea eta betetzea	20. or.
6. unitate didaktikoa: Sektoreko berariazko testuetan terminologia egokia aztertzea eta erabiltzea	23. or.
7. unitate didaktikoa: Sektorearekin lotzen diren web-orrietan informazioa bilatzea eta identifikatzea.	25. or.
8. unitate didaktikoa: Produktuak/zerbitzuak identifikatzea eta deskribatzea: sektoreko publizitatea, bideoak, eskuliburuak, berariazko liburuxkak	28. or.



## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK			UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3		
			UD0: Moduluaren aurkezpena. Hasierako ebaluazioa eta diagnostikoa.	1 h
X	X		UD1: Hiztegia erabiltzea	2 h
	X	X	UD2: Posta elektronikoa, fax eta burofax profesionalak interpretatzea eta jaulkitzea	4 h
X	X	X	UD3: Enplegu-eskaerari erantzutea. Curriculum Vitae lantzea eta babestea	7 h
X	X	X	UD4: Informazioa eskatzea eta jaulkitzea; hitzordua egitea; produktuak igortzeko/hartzeko datak eta baldintzak berrestea	6 h
X	X	X	UD5: Eskaerako/harrerako orriak eta fakturak interpretatzea eta betetzea	4 h
X	X	X	UD6: Sektoreko berriazko testuetan terminologia egokia aztertzea eta erabiltzea	4 h
X	X	X	UD7: Sektorearekin lotzen diren web-orrietan informazioa bilatzea eta identifikatzea	3 h
X	X	X	UD8: Produktuak/zerbitzuak identifikatzea eta deskribatzea: sektoreko publizitatea, bideoak, eskuliburuak, berriazko liburuxkak	9 h
<b>GUZTIRA</b>				<b>40 h</b>

1. multzoa: Ahozko mezuak ulertzea eta sortzea
2. multzoa: Idatzizko mezuak interpretatzea eta adieraztea
3. multzoa: Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: Ordu 1		
<p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Moduluren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.</li> <li>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.</li> <li>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.</li> <li>4. Moduluren unitate didaktikoen arteko eta moduluren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.</li> <li>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</li> </ol>				
EDUKIAK		Multzoak		
		1	2	3
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.</li> <li>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</li> </ul>			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak, eta moduluarekiko lotura.</li> <li>• Moduluren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.</li> <li>• Moduluren helburuak.</li> <li>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</li> </ul>			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.</li> <li>• Moduluren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</li> </ul>			



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			lr.	lk.			
<b>J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.</b>	1	10 min.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
<b>J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.</b>	2-4	10 min.	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluen gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela.  Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.  Kronogramak.  Informazioa duten fotokopiak.
<b>J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.</b>	2-3	10 min.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.  Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
<b>J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.</b>	5	30 min.	X	X	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitateari egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.



### OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa banean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurrefiatzko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.





1. unitate didaktikoa: HIZTEGIA ERABILTZEA						Iraupena: 2 ordu		
<p><b>IE1: Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen ditu.</b></p> <p><b>IE2: Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.</b></p> <p><b>IE3: Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.</b></p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Ahozko hitz berriak sortzea.</li> <li>Laburdurak, erroak, atzizkiak eta aurrizkiak identifikatzea eta, hala, hitz berriak ulertzea.</li> </ol>								
EDUKIAK						Multzoak		
						1	2	3
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.</li> <li>Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak identifikatzea.</li> </ul>					X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztegietan erabiltzen diren laburdurak identifikatzea eta horien balioa interpretatzea.</li> </ul>						X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.</li> <li>Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.</li> </ul>					X	X	X
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK
ZER egingo duzun edo duten. Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.				
J1 Hiztegiak interpretazio zuzenerako ematen dituen informazioak	1-2	20 min.	X	X	Irakasleak azalpenak emango ditu, eta ikasleak zalantzak galdetuko ditu edo informazio osagarriak eskatuko ditu.	Hiztegietan aurki daitezkeen informazioa errazago ulertzeko (adib. kontagariak eta kontaezinak) eta hitz berriak autonomiaz ahoskatzeko.		Hiztegiak



azaltzea.							
<b>J2 Gehien erabiltzen diren on lineako hiztegiak eta horien aukera guztiak aurkeztea.</b>	1-2	20 min.	X	X	Irakasleak Internet-eko hiztegiak eta horien aukerak, audioan eta euskarri idatzian, azalduko ditu. Irakasleek zalantzak argituko ditu.	J1 jardueraren xede bera. Hiztegien aukeraz jabetzeko eta ondoren erabilera emateko.	Interneteko kontsultak
<b>J3-E1 Ingelesaren fonemarik adierazgarrienak azaltzea.</b>	1	40 min.	X	X	Irakasleak ahoz azalduko du eta hainbat ahotsetako audioko adibideak eskainiko ditu. Irakasleek ahoz sortzeko ariketak egingo dituzte.	Irakasleek ingelesez modu ulergarrian ahoskatzeko, hitz ezezagunak izanik ere. Irakasleek prozesuaren etengabeko ebaluazioa egiteko.	Eskura dagoen audio-materiala. Hiztegiak.
<b>E2. Berariazko ebaluazio-jarduera.</b>	1-2	40 min.		X	Azaldutakoa aplikatzea eskatuko duten egoerak bilatzea edo ebaztea eskatuko du irakasleak.	Hiztegiaren erabilerarekin lotutako independentzia-maila jakiteko.	Ariketak eta/edo balizko ahozko grabaketak
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>Adierazitako denbora-banaketa orientagarria baino ez da. Irakasleak talde bakoitzaren ezaugarrietara eta beharretara eta ikaskuntzan duten bilakaerara egokitu beharko du denbora-banaketa. Era berean, jarduerak denboran atzeratzen diren edo beste mota bateko jarduerak tartekatzea komeni den zehaztuko du. Adibidez: lehenengo eskola-egunetan 5 minutu eskainiko zaizkio fonetikari eta, gero, beste jarduera batzuk egingo dira.</li> <li>Halaber, 3. jarduera E1 ebaluazio-jardueran proposatutakoarekin batera jorra daiteke.</li> </ul>							



2. unitate didaktikoa: POSTA ELEKTRONIKO, FAX ETA BUROFAX PROFESIONALAK INTERPRETATZEA ETA JAULKITZEA		Iraupena: 4 ordu		
<p><b>IE2: Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.</b></p> <p><b>IE3: Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.</b></p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Oinarrizko baliabide gramatikalak eta lexikografikoak identifikatzea.</li> <li>Lanbideari dagokion berriazko terminologia eta hiztegia behar bezala identifikatzea eta erabiltzea.</li> <li>Ohikoenak diren euskarri telematikoak interpretatzea eta erabiltzea: faxa, e-posta, burofaxa.</li> <li>Landu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak bereiztea eta erabiltzea.</li> </ol>				
EDUKIAK		Multzoak		
		1	2	3
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko.</li> <li>Hainbat formatutan emandako mezuak ulertzea.</li> <li>Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldebekotasuna.</li> <li>Testu sinpleak lantzea euskarri telematikoan erabiltzeko.</li> <li>Portaera sozio-profesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.</li> </ul>		X X X X	X   X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sektoreko terminologia espezifikoa.</li> <li>Informatika-euskarrien erabileraren berezitasunak.</li> <li>Protokolo-formulak idazki profesionaletan.</li> </ul>		X X X	X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.</li> <li>Testuen garapenean koherenziaren premia baloratzea.</li> </ul>		X X	X X



JARDUERA				NORK		METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten. Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
<b>J1 Gramatika-baliabideen azalpena eta praktika egitea: aditz-denborak, lokuzioak, preposizioak, adberbioak, eta abar.</b>	1	1 h	X	X	Irakasleak emandako azalpenen ondoren, eta ariketa idatzien bidez edo informatika-euskarriaz baliatuta, ikasleek azalpenak ulertu dituztela erakutsiko dute.	Mezuak lanbide-egoeretan ulertzeko moduko gramatika-zuzentasun egokiarekin emateko.	Bitarteko idatziak eta/edo informatikoak, eskukoak eta abar.	
<b>J2 Sektoreko berezko jardueretan informatika-euskarrien erabilera azaltzea eta erakustea.</b>	3	30 min.	X	X	Irakasleak azalpenak emango ditu eta, horretarako, dokumentuak eta euskarriak erabiliko ditu.	Euskarriaren garrantziaz jabetzeko, eta produktuaren edo sektorean egiten den zerbitzuaren arabera egoera bakoitzak testu mota ezberdina eskatzen duela jakiteko.	Sektorean bildutako benetako materiala.	
<b>J3 Sektorearen berezko terminologia eta, euskarri telematikorekin erabiltzeko, idatzizko hizkuntzaren formulak eta protokoloak aurkeztea eta azaltzea.</b>	2-4	1 h	X	X	Irakasleak gaia azaldu eta adibideak emango ditu. Ikasleen zalantzak argituko ditu, eta ama-hizkuntzako antzeko egoerekin alderatuko du.	Herrialdeen arteko aldeak eta antzekotasunak alderatzeko eta sektoreko ingelesezko lexikoa memorizatzen.	Espezialitateko berezko ariketak eta materialak. Liburuxkak, publizitateko zerbitzuaren deskribapena, eta abar. Fax, e-posta, eta abarreko testuak.	
<b>J4-E1 Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezuak interpretatzeko ariketa egitea.</b>	2-3-4	30 min.	X	X	Irakasleak eta ikasleek bildutako lanbide-espezialitatearen berezko materialak erabiliko dira.	Material hori behar bezala interpretatzeko, eta herrialde bakoitzeko gizarte- eta kultura-inplikazioak ulertzeko. Ikaskuntzaren garapena behatzeko eta ebaluatzen.	Sektorean bildutako benetako materiala.	



<b>J5-E2 Sektoreko berezko edukiei buruzko faxak, burofaxak eta mezu elektronikoak jaulkitzean, lexiko eta protokolo-formula egokiak erabiliz testu sinpleak egiteko praktika gidatua egitea.</b>	2-3-4	1 h	X	X	Hasteko testu bat osatzeko edo aurretiazko formulak eta perpausak ordenatzeko ariketak egin daitezke. Gero, irakasleak proposatutako lanbide-egoera baterako e-posta bat (edo fax bat edo burofax bat) landu ahal izango da.	Jada baliabideak dituzten ikasleei konfiantza emateko.  - Ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko.	Prestatutako ariketak: hutsuneak betetzea, ordenatzea,...  - Irakasleak proposatutako sektoreko egoera jakin bat ebazteko testuak benetan trukatu dituzten taldeetan lan egitea.
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasle bakoitzaren erabakia izango da, taldearen ezaugarriak eta beharrak kontuan izanik, jarduera bakoitzari adierazitako iraupena ematea edo denboran atzeratzea eta beste jarduera batzuekin tartekatzea komeni den. Esate baterako, gramatika-edukiak 10 minutuz berrius daitezke hainbat egunetan zehar, eta testuak ulertzeko eta lantzeko lana tarteka daiteke.</li> </ul>							



3. unitate didaktikoa: ENPLEGU ESKAERARI ERANTZUTEA. CURRÍCULUM VITAEA LANTZEA ETA BABESTEIA		Iraupena: 7 ordu		
<p><b>IE1: Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskaintako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen ditu.</b></p> <p><b>IE2: Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.</b></p> <p><b>IE3: Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.</b></p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatzea.</li> <li>2. Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatzea.</li> <li>3. Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatzea.</li> <li>4. Bere eskumeneko lan-prozesua eta egin beharreko zereginak deskribatzea eta sekuentziaztea.</li> <li>5. Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatzea.</li> <li>6. Nork bere prestakuntza eta lanbide-kompetentziak aurkezteko, Europako herrialdeetan erabilitako jarraibideen araberrako Curriculum Vitaea egitea.</li> <li>7. Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatzea.</li> <li>8. Beharrezkotzat jo duenean, diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatzea beste bati.</li> </ol>				
EDUKIAK		Multzoak		
		1	2	3
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testu koherenteak lantzea.</li> <li>• Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko ahozko edo idatzizko iragarkien atalak ulertzea.</li> <li>• Norberaren profilarekin lotzen den lan-eskaera egitea: curriculuma, aurkezpen-gutuna.</li> <li>• Laneko elkarrizketa bat prestatzea, nork bere prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.</li> <li>• Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.</li> <li>• Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adetasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.</li> <li>• Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.</li> <li>• Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak.</li> </ul>	X	X X X X	X



KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.</li> <li>Hizkuntzaren erregistroak.</li> <li>Europako Curriculum Vitaearen ereduak.</li> <li>Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.</li> <li>Ingelesa hizkuntza duten herrialdeetako gizarte- eta lanbide-elementurik adierazgarrienak.</li> </ul>			X	X		
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ahoz eta idatziz ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>Ohiturekiko eta pentsamoldeekiko errespetua azaltzea.</li> <li>Nazioarteko harremanetan gizarte- eta kultura-arauak eta protokoloak baloratzea.</li> </ul>			X	X	X X	
JARDUERA			METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
<b>J1 Europako Curriculum Vitaearen ereduak aurkeztea.</b>	3-6-7	1 h	X	X	<p>Curriculum vitaeeko eredu bat irakurriko dute ikasleek, eta irakasleak oro har ulertu dutela egiaztatuko du.</p> <p>Curriculum vitaearen atalak landuko dira, baita Europako mailaren arabera hizkuntza-kompetentzia ere (hizkuntza-pasaportea). Ikasleen herrialdeko eta Europako herrialde bateko ikasketen arteko baliokidetasunak adieraziko dira.</p> <p>Irakasleak lanbideekin, lanpostuekin eta tituluaren erreferentziako lanbide-profilaren barruan garatu beharreko kompetentziekin lotura handiena duten curriculum vitaeeko atalak nabarmenduko ditu.</p>	Lanbide-profileko lanpostu batean eska daitezkeen kompetentziak erreferentziatu eta deskribatu ahal izateko.	Interneteko ereduak edo fotokopiak.	
<b>J2-E1 Europako ereduaren jarraibideen arabera lantzea curriculum vitaeak.</b>	3-6-7	1 h	X	X	Atal guztietan proposatutako ereduaren arabera, pertsona bakoitzak bere curriculum vitaeak landuko du, eta, eginkizun horretan, herrialde bakoitzean titulazioetarako azaldutako baliokidetasunak	Nork bere curriculum vitaeak ingelesez idatzita edukitzeko, eta bidezkoa denean erabili ahal izateko.	On-lineako edo fotokopiatutako curriculum vitaearen ereduak.	



					aplikatuko ditu.	Norberaren prestakuntza-arloko lorpenen edo hutsuneen jakitun izateko.  Curriculum vitaearen ulermena eta zuzentasuna ebaluatzeko.	
<b>J3-E2 Iragarki idatzi bidezko edo bideo-iragarki bidezko (web) lan-eskaintza aurkeztea eta aztertzea.</b>	2-3-5-7	1 h	X	X	Ingalaterrako prentsan edo telebistan agertu diren lanbide-sektoreko iragarkiak aztertuko dira. Iragarki horien atalak hartuko dira aintzat eta nork bere curriculumaren edukiarekin lotuko ditu. Irakasleak iragarkian eskatzen den profilaren alderdirik adierazgarrienak nabarmenduko ditu (konpetentziak, zereginak, funtzioak), baita lanpostua eskaintzen duen enpresari buruz ematen duen informazioa eta lanpostuaren baldintzak ere (soldata, sariak, ordutegiak, joan-etorriak, eta abar).	Norberaren prestakuntzarekin eta kualitateekin bat datozen eskaintzak ezagutu ahal izateko eta interesgarriak ez direnak baztertzen jakiteko.  Lan-munduratzeko garaian, norberaren prestakuntza-arloko lorpenen eta hutsuneen jakitun izateko.  Ulertzeko gaitasuna ebaluatzeko.	Prentsa. Internet, enpresen web-orriak.
<b>J4 Lan-eskaintza bati erantzuteko aurkezpen-gutuna, CVari gaineratuko zaiona, aztertzea.</b>	1-2-3-5-7	1 h	X	X	Aurkezpen-gutunen eredu bat edo batzuk abiapuntu izanik, gutunaren zatiak identifikatu eta protokolo-formulak bereizi beharko dira.  Iragarkian eskatzen diren alderdiak eta horiek aipatzen dituzten paragrafoak lotu beharko dira. Curriculum vitaearen alderdirik sendoenak nabarmenduko dira eta gutunean nola jasotzen diren eta eskariarekin nola lotzen diren ikusiko da.	Lan-merkatuko eskariak norberaren prestakuntzarekin eta esperientziarekin lotzeko eta lanbide-etorkizunerantz bideratzeko.	Benetako materialean edo metodoetan dauden gutun-ereduak.
<b>J5-E3 Lan-eskaintza bati erantzuteko aurkezpen-gutuna, ikaslearen CVari gaineratuko zaiona, aztertzea.</b>	1-2-3-5-7	1 h	X	X	Proposatutako ereduak abiapuntu izanik, ikasle bakoitzak norberaren curriculum vitaeari gaineratuko zaion aurkezpen-gutuna idatzi beharko du, eta lanpostu-eskaintza bati erantzungo dio.  Iragarkian eskatzen denari erantzun diezaieketen norberaren curriculumeko punturik sendoenak nabarmendu beharko dira (prestakuntza, eskatzen den lanbide-arlo horretan izan diren esperientziak,	Lan-merkatuko eskariak norberaren prestakuntzarekin eta esperientziarekin lotzeko eta lanbide-etorkizunerantz bideratzeko.  Lan-munduan norberak dituen aukeren jakitun izateko.  Curriculum vitaearako eta iragarkirako	Gutunen eta iragarkien ereduak.





					hizkuntzak, eta abar).	egokitzapenean oinarrituta, eta landutako gutunaren zuzenketak edo urritasunak kontuan izanik, ikaskuntza ebaluatzeko.	
<b>J6 Lanpostua lortzeko elkarrizketa prestatzea.</b>	1-2-4-5-8	1 h	X	X	Ahozko elkarrizketak (errealak edo simulatuak) behatuta, horien zatiak bereizi beharko dira: 1.- Enpresari, lanpostuari eta baldintzei buruzko informazioa.  2.- Curriculum vitae aurkeztea eta alderdirik sendoenak nabarmentzea.  3.- Lanpostuari eta lan-baldintzei buruzko galdera osagarriak: lan-lekua, bidaiak, lanpostuan egin beharreko zereginen sekuentzia, eta abar.  4. Protokolo-formulismoak eta gizarte- eta kultura-ohiturak.	Benetako elkarrizketa batean parte hartzean, norberaren aukerez jabetzeko. Egoera gertatzen bada, behar bezala jarduteko.	Benetako materiala edo ikaskuntzarako simulatua.
<b>J7-E4 Lanpostua lortzeko elkarrizketa egitea.</b>	1-2-4-5-8	1 h	X	X	Irakaslearen argibideei jarraituz, eta bi pertsonako taldeetan (elkarrizketatzaile enpresaburua eta elkarrizketatua), lehenik elkarrizketaren simulazioa prestatu eta egin egingo dute. Elkarrizketa grabatu ahal izango du irakasleak, ondoren aztertu, zuzendu eta ebaluatzeko.	Benetako elkarrizketa batean norberaren aukerez jabetzeko. Egoera gertatzen bada, behar bezala jarduteko.  Ikaskuntza ebaluatzeko.	Aurreko jardueraren material bera, gehi irakasleak jarritako osagarriak: egin daitezkeen galdera motak, protokolo-formulismoak, hizkuntza-erregistroak, eta abar.
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleak unitate didaktiko hau programazioaren zein unetan jorratzea komeni den erabakiko du. 3. unitate didaktiko gisa txertatu da, lehen hiruhilekoan sartzeko. Izatez, Euskal Autonomia Erkidegoan, praktikak atzerriko enpresa batean egitea eskatu nahi duen ikasleak, normalean, une horretan eskatu behar du, eta, horretarako, beharrezkoa izango da curriculum vitae jorratu izana. Behar hori ez badago, bigarren edo hirugarren hiruhilekora atzera daiteke unitatea.</li> </ul>							



4. unitate didaktikoa: INFORMAZIOA ESKATZEA ETA JAULKITZEA; HITZORDUA EGITEA; PRODUKTUAK IGORTZEKO/HARTZEKO DATAK ETA BALDINTZAK BERRESTEA		Iraupena: 6 ordu		
<p><b>IE1: Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskaintako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen ditu.</b></p> <p><b>IE2: Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.</b></p> <p><b>IE3: Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.</b></p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Zuzeneko mezuaren, telefono bidezko mezuaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezko mezuaren xedea ezagutzea.</li> <li>Ahozko mezu zehatzak adieraztea egoera puntualak ebazteko: informazioa eskatzeko, hitzordua egiteko, produktua igortzeko/hartzeko datak eta baldintzak berresteko.</li> <li>Beharrezkotzat jotzen duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatzea.</li> <li>Atzerriko herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatzea.</li> </ol>				
EDUKIAK		Multzok		
		1	2	3
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.</li> <li>Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.</li> <li>Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak.</li> <li>Nahikoa ulertzeko soinua eta fonemak egoki sortzea.</li> <li>Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea.</li> </ul>	X X X X		X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sektoreko terminologia espezifikoak.</li> <li>Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, adberbioak, preposizioak, preposizio- eta adberbio-lokuzioak, zeharkako estiloa.</li> <li>Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.</li> </ul>	X X X	X X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzeko.</li> <li>Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.</li> <li>Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>Nazioarteko harremanetan, hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.</li> </ul>	X X X	X X	X X



JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
